Bayona, 14 de agosto de 1.971

625

M. Manuel de Irujo
DONIBANE LOITZUN (Laburdi)

Amigo D. Manuel ,

Según hemos quedado esta mañana en nuestra conversación teléfonica, adjunto le envío cheque cruzado nº 1634236 a su favor y contra este Banque Inchauspé & Cie, extendido por :

Fr. -638'11 a que asciende el líquido de mi deuda con su hermano
----------- Andrés, a quien escribiré el próximo lunes para comunicarle esta operación.

Que siga Vd. bien disfrutando los días que le quedan de su estancia en Laburdi, y, después, como pienso que irá a Inglaterra, que siga gozando en compañía de Mirentxu y de su familia todos los días que pasen hasta su regreso a Paris. Un saludo afectuoso para Mirentxu y los suyos.

Y un cordial saludo para Vd. de este alavés

A. Urrestarazu

*Gouvernement d'Euzkadi*
*Délégation de Bayonne*
10, Boulevard Alsace-Lorraine
Tél. 523-94

Bayona, 27 mayo 1.971

M. Irujo, Manuel
<u>PARIS</u>

638

Amigo D. Manuel ,

He estado en la catedral según Vd. me ha pedido; he hablado allí con Txillardegi y casi todos los demás. Txillardegi no tenía inconveniente en dar su nombre, pero los demás se han negado, diciendo además que no se los han dado a nadie.

Uno ha preguntado para que? y yo le he contestado que no lo sabía concretamente, pero que suponía que los querían ahí para alguna gestión que estarán realizando en favor de todos ellos. Pero, de todos modos, salvo el primero, ninguno desea que se faciliten los nombres.

Con Monzon están ya en el hospital otros cuatro, y todos parecen seguir con el propósito de continuar la huelga. De quien más se teme es de Monzon en cuanto a la salud se refiere; y los que están en la catedral, aunque muy debilitados, se encuentran bien.

Siento no haber tenido más éxito. Que siga Vd. bien. Mis mejores saludos

A. Urrestarazu

TÉLÉPHONE 25.23.94

Euskal-Kulturaren Alde
10, Boulevard Alsace-Lorraine
64 - BAYONNE (Laburdi)

652

Bayona'n, 1.971'ko epailaren 24'n.

Irujo'tar Imanol jauna
PARIS

Amigo D. Manuel ,

En la idea de que se encuentra bien y deseándole precisamente que así sea, nos permitimos dirigirle estas líneas para solicitar su parecer acerca de una idea nuestra.

Junto con la presente le enviamos dos hojas impresas. En una de ellas aparece el anuncio de nuestro »Premio Aguirre» para otorgarlo por cuarta vez; y en ambas los detalles de esa idea nueva nuestra.

Según verá, esta es nuestra nueva idea: Crear o fundar un nuevo Premio que lleve también el nombre de »Premio Aguirre.» La idea, todavía, es provisional, y antes de convertirla en definitiva quisiéramos recoger otros criterios respecto a la misma, sobre todo de los que antes han sido, como Vd., nuestros favorecedores.

¿

Por tanto, vea Vd. por favor, cómo presentamos aquí nuestra idea; y, si le parece bien, denos tranquilamente sobre ella su parecer y también sus ideas y sus consejos. Por un lado nosotros nos encontramos necesitando la ayuda de los demás, y por otro, lo mismo para este asunto como para otros muchos, creemos conveniente obrar en colaboración con el mayor número de personas; y es así como queremos proceder.

De todos modos, tanto por la ayuda que antes nos proporcionó como por cuanto pueda decirnos ahora, le estaremos siempre profundamente reconocidos.

En espera de sus noticias, reciba nuestros más atentos y afectuosos saludos

A. Urrettarazu

Secretario

## "AGIRRE TA LEKUBE'TAR JOSEBA ANDONI SARIA" - IV'GARREN ALDIRAKO DEIA

### S A R I K E T A

Ura oroiterazi aren euskaltzaletasuna gureganatu ta euskera iraunerazi ta bizkortzeko asmoz, Agirre ta Lekube'tar Joseba Andoni deritzan saria, laugarrenez antolatzea erabaki dute "Euskal-Kulturaren Alde", kaek. Sari ori norgeiagokoa izango da, ta ona emen sariketa orri buruz zeetasunak:

1) IV'garren "Agirre-Saria", iru urte buru emana izango da. Beraz 1970'garreneko Epaillaren 23'garrenean asi ta 1973'garreneko Epaillaren 22'garren arte, euskeraz argitaratuko dan idazti oberenak irabaziko du sari ori.

2) Idaztiaren gaia idazleak bere gain du.

3) Saria bat bakarra, ta milla dolarekoa izango da.

4) "Euskal-Kulturaren Alde"'ren gain geratzen da epaia ematea. Epaille bakoitzak autarki ixillez emango du bere erabakia. Erdia baño bat geyago lortu dezan idaztiak saria irabaziko du.

5) "Euskal-Kulturaren Alde"'k berak emandako erabakia erabat onartzekoa izango da, ala bearrez, ta eztu izango iñork epai orren aurka gora yoterik.

6) Sari ori ezin zatibanatu diteke.

7) Orrenbesteko saria irabazteko lain izan liteken idaztirik ezpalego iñori ezin eman liizaioke.

8) Epaia eskualdeka emana izan liteken susmoa erabat kentzeko, sari ori ezin yaso lezake "Euskal-Kulturaren Alde"'ko dan iñork. Edo ta baldin sari au norentzat izan liteken erabaki bitartean, "Euskal-Kulturaren Alde"'ko norbaitek idaztiren bat argitara baleza, dalako ori ezin izan liteke epaille.

9) Epaia garaiz emana izan dedin, idazle bakoitzak bere idaztiaren bi ale igorriko balizkigu, txera onez artuko genituzke. Idazti bat zuzenbide ontara: 10, Bd. d'Alsace-Lorraine - 64 Bayonne, Laburdi, eta bestea, 48, rue Singer, Paris XVI, "Euskal-Kulturaren Alde"'ren izenean.

* * * * * * * *

*OARRA*

*"AGIRRE-SARIA" irasi zanean, "Euskal-Kulturaren Alde"'ren asmoa etzan izan epe batean euskeraz idatzi liteken liburu onenari emateko bakarrik. Beste gaiak ere aipaturik izan ziran orduan sarigarritzat, eta gerorako utzi zan gai oietako bat edo beste aukeratzea, izena berberaren pean, beste sari bat irasi, iragarri ta emateko.*

*Ba-du gaurkoa ere orduko asmoa "Euskal-Kulturaren Alde"'k, eta ordudanik ona gure bazterretan beste sari batzuk, bakoitza bere gai ta elburuz, eraturik izan diralarik, ez du, beste sari berri bat irastean, oien sola pentzetan sartu nai. Orrengatik eta oindiño ikutu ez bide dan beste gai egoki bat dagoela uste duelako, orixe aukeratu nai du guztiz sarigarri dalakoan.*

*Txiñurriak bezela, ba dagoz, euskaltzaleen artean, beren bizian barna egunero ta guzion txiñurritegia dan euskerarentzat beren aleak eten gabe daramazkitenak. Beren lana, bearbada, ez da besteentzat oso nabaria, edo izan bear-izango litzaken bezela ezagutua, baña bai oso onuragarri ta garrantzidune ordea. Ta "Euskal-Kulturaren Alde"'ren ustez guztiz autagarri ta sarigarri ere.*

*Orixe dala ta, "Euskal Kulturaren"'k euskaltzale oietako bat saristatzeko asmoa artzen du, gaur, oindiño, bein beñerako baldin bada ere; ta xede ortaz "AGIRRE-SARIA" izeneko beste sari bat irasi nai du, lenengoarekin batera emateko gogoaz, gure laguntzalleak ortarako bear-izango dugun dirua osatzen baldin badigute.*

*Asmo ontan jarrai al izan ezkero, "Euskal-Kulturaren Alde"'k, bere egunean, garaiz, beste sari orren xeetasunak jakin-erziko ditu, euskaltzale guziek aintzakotzat artuko dutelak an.*

************************

# BIGAŔEN »AGIŔE-SARIA»

»Euskal-Kulturaren Alde»'k bere lenengo »Agiŕe-Saria» irasitakoan artu zuen xedeari jaŕaitzeko, »AGIŔE-SARIA» izenaz ere beste sari berezi bat irastea erabaki du. Ona emen bigaŕen »AGIŔE-SARI» oŕen elburua :

- Bere bizian barna euskeraren alde lan egoki ta jaŕaikia burutu duen euskaltzale bat saristatzea -

Noski, mail ortan sarigaŕi izan diteken bat baño geyago dago geron ustez, eta guzien artean bat aukeratzea ezin izan diteke eŕaz, ez eta beste batzuk ere aintzakotzat artzeko ez diralarik esan.

»Euskal-Kulturaren Alde»'ren asmoa auxe da: bigaŕen sari ori iru urtetik iru urtera bein ematea, bere lenengoko »Agiŕe-Sari»'arekin batera; epe bakoitzean euskaltzale bat sariturik izan dedin.

Saridunа aukeratzeko, »Euskal-Kulturaren Alde»'k azken itza izango du beti, bidezkoa danez. Baña bere iritzia laguntzeko ta aukeratzea alik eta ongienik egiña izan dedin, euskaltzale guziai dei berezia egiten die, nai dezanak, garaiz, asmoari buruz bere iritzia biali dizaion (Zuzenbide ontara : »Euskal-Kulturaren Alde» - 10, Bd. d'Alsace-Lorraine - 64.- Bayonne (Laburdi)).

Iritzi ori ematean gauza bi auek adierazteko eskatzen zaie guziei : 1- Sarigaŕiaren izen eta zuzenbidea. - 2- Sarigaŕiaren lan edo lanak zeintzuk diran , eta izena emanen duen euskaltzalearen aburuz, esondatutakoari sarigaŕi egiten dioten lan oien gaŕantzia adieraztea.

Oŕela ezpegi bi izango ditugu begiratzeko: bat, lan-aindoa bezela; bestea, lanaren gaŕantzia. Oŕengatik auxe gerta diteke: gaŕantziagatik bat sarigaŕiagoa izatea, lan asko aurkezteagatik baño. Beraz, izen bat ematea ez da autarki bat bezela bakaŕik artuko; orixe eŕezagoa izango litzake, alegia, baña lanaren gaŕantzia aintzakotzat artu beaŕ dalakoan gagoz.

Bere iritzia bialduko duen bakoitzari, »Euskal-Kulturaren Alde»'k erantzun egokia egingo dio beti ta zuzen, egindako laguntzagatik eskeŕak emateko.

Saria, bakaŕa ta 1.000'-- (miĺa) dolaŕekoa izango da.

»Euskal-Kulturaren Alde»'ren erabakia bein-betikoa izango da. Alaz ere, bere erabakia zergatik artu duen adieraziko du, ta sarigaŕi bezela esondatuko zaizkion izen eta lanak ere jakin-eraziko ditu.

Bayona'n, 1.971'ko ...................'ren ......'n.